

ADUNAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## KIROL PISTA – KONPOSTAJE GUNEA

Dagoeneko kirol pista erabilgarri dago herritarrentzat. Arazotxo bat egon da urdinez margotutako marrekin eta berriz margotu behar dituzte, beraz eguraldiaren arabera pare bat egunez pista berritxo da berriz margotzeko.

Bestalde, konpostaje gune berria, txabola modukoa izango da. Montatzen denean bando bidez informatuko degu nola erabili behar den. Egurrak tratamendu berezia behar du, eta dagoeneko eskatuta dago, baina tratamendu horrek hiru aste inguru pasako ditu, beraz pazientzi pixka bat gehiago eskatzen dizuegu.

Barkatu eragozpenak!

## INGURUMEN EGUNEKO LEHIAKETA

Ekainaren 5ean mundu mailan Ingurumenaren Eguna ospatzen dela aitzakia hartuta, aurten ere galdera-erantzunen lehiaketa bat antolatuko du Udalak, kontsumo arduratsua gaitiari lotuta.

Lehiaketan parte hartzeko, [www.aduna.eus](http://www.aduna.eus) web guneako "Nabarmentzekoak" atalen sartu eta bertan dagoen galdera-erantzunen formularioa bete behar da. Epea: ekainaren 1etik 14ra.

Galderak ondo erantzuten dituzten herritarren artean otordu bat zozkatuko du Udalak.

Horrez gain, ekainaren 1ean (astelehena), 10:00etan, Herri-Eskolako ikasleek Energia eta Mugikortasunari buruzko ekimen bat garatuko dute 10:45 bitartean eta gero, udal ordezkariekin bilduko dira, ikasturte honetan egindako lanaren berr emateko.

Bukatzeko, Tolosaldeko beste hainbat herritan ere Ingurumen Egunari lotutako ekintzak antolatuko dira: mendiko irteera ezberdinak, 2. eskuako azokak, etab. Informazio gehiago hemen: [www.tolosaldeagaritzen.eus](http://www.tolosaldeagaritzen.eus)

Animatu eta parte hartu!

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)

# IPUINAREN HABIA



Ipuina entzun, ipuina bizitu, ipuina kontatu,  
ipuina ....



## Arduraduna:


Lur Usandizaga

**Adina:** 3-6 urte bitartekoentzat

**Non:** Adunako liburutegian

**Noiz:** Ekainak 2, asteartea

**Ordua:** 17:30-18:00



MAIATZAK 30

# Serbidetze eguna



Amasa - Villabonan

*Aitzanda \* El Sabrador*



11:00  
HARRERA INSTITUZIONALA, VILLABONAKO UDALEAN  
11:30  
HARRERA HERRIKOIA, BERDURA PLAZAN  
12:00  
KALEJIRA INTERNAZIONALISTA  
13:00  
PINTXO SOLIDARIOAK BERDURA PLAZAN, BARRIKOTEA  
14:30  
BAZKARIA BERDURA PLAZAN, ONDOREN ISKABILA  
TXARANGA  
Tikeak solgoi: Irizor, Iru Aldeto, Iñorte Jaletxoq, Aixelondo eta Egorri

## TXULOBİ ELKARTEA

### MENDIKO BIZIKLETA IRTEERA LEITZARANGO BIDEKIK

Leitzarango bideetik egingo dugu Leitza iritsi arte eta bertan bazkaritxo bat egingo dugu arratsaldean berriro ere herrira itzuliz.

#### Deialdia

**Eguna :** 2015eko ekainak 7, igandea.

**Ordua :** Goizeko 9.30etan, irteera.

**Lekua :** Txulobi Elkarte aurtrean.

**Izen ematea:** Uztartzan eta Elkarteko ohar taulan. Ekainaren 4a izango da izena emateko azken eguna.

**Prezioa:** Bazkaria ordainutzeke. Irten aurretik jasoko da.

6,00 Euro helduek

3,00 Euro haurrek

**Bazkaria:** 14.00tan Leitzaoko Plazaola parkeko errekan.

**Animatu, ondo pasako dugu etan!**

Bertan ikusiko garelakoan,

Agur bat.

